

AURKEZPENA

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Boletinaren osagarri literario bezala azaltzen zen aldizkari hau, 1948. lehen hiruhilabetekoan, apal, bere 32 orrialdetxoekin lotsaturik bezala, plazaratu zen *EGAN*.

Ala ta guztiz ere, garai artan nahiko berrikuntza zen zerbait zekarkien *EGAN*ek, alegia, bere orrialdeetatik 12 euskeraz idatzita izatea. Garai artan bizi zirenak gogoan izango dute noski euskaraz inprimatutako zerbait irakur ahal izatea, gertaera haundia zela. Orain zerikusirik ez duten zenbait arrazoiengatik, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarateak eman zuen pauso garrantzitsu hau. Lehenengo ale hau berrikusirik, Blas de Oteroren testu bat aurkitzen dugu, bigarren alean berriz, Gabriel Celayarena eta geroztik, Federico Krutwig, Pierres Larzabal eta abar luze bat.

Urteak joan ala, ekintza literario hauei gertatzen zaien moduan, zizaka hasi zen aldizkaria indartzen, zabaltzen, eta sinadura berriekin aberasten joan zen. 1953. urtetik aurrera *EGAN* osorik euskaraz azaltzen da, eta horrela dirau gaurko egunean ere.

Baina *EGAN*ek, gure artean ekintza kultural hauei sarritan gertatzen zaien bezala, ekonomi aldeko murriztasunak eta larriak jasan izan behar zituen, bere buruaren finantziaketa lortu ezinik. Arazo hau gainditu asmoz, Gipuzkoako Foru Aldundiak, 1954. bigarren hiruhilabetekoan, sortu berria zuen "Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo"ren bitartez, aldizkariaren ardura bere gain artu zuen. Hori horrela izanik, *EGAN* birmoldatu, eta berezko jarduera zuen aldizkari bat bihurtu zen, eguneko kultur gaiari bere orrialdeak zabalduz. Koldo Mitxelena zinemako kritikak egiteari ekin zion, eta Antxon Arruek berriz gastronomi gaiak erabiltzen zituen. Hasieran izan zen zenbait testuren antologitxoa izateari utzi zion. Euskaltzaindiko hiru Akademi-

koek hartu zuten bere gain, garai horretan, zuzendaritzaren ardura: Antonio Arrue, Koldo Mitxelena eta Aingeru Irigaray.

Eta *EGAN*, bere laguntza eskaini zioten zenbait sinadurari esker, goraka, asten zijoan, bai neurri aldetik, baita edukinaren aldetik ere. Esan daiteke garaiko Euskal idazlerik gehienak bere orrialdeetan azaltzen direla. *EGAN*en lorpenik haundiena, euskara erabat basterturik zegoen garai artan, euskal idazleak beren izkuntzan idatzi ahal izateko bide bakarra gertatzen zela aitortzea da.

Gaur, ainbeste euskarazko argitalpen dauden garai honetan, *EGAN*, bere berrogei urterekin, zaharrena da.

Denboraren eraginez, nahaitaezko utsuneak sortu ziren zuzendaritzan. Lehenik Arrue jauna joan zitzaigun, ondoren Irigaray jauna, Koldo Mitxelena bakarrik geldituz. Honek, euskal filologian hain pertsonalitate aipagarria lortu zuenean, gero eta erantzukizun haundiagoko arazoak sortzen zitzaizkion arren, etzuen ez hain berea zuen eta bere alde hainbeste ahalegin egin zuen *EGAN* utzi. Juan San Martin izan zen, maixu ospetsua bizitu zen artean laguntzaile zuzendaritzan. Hain zuzen, Koldori omenezko *EGAN* ale honen prestaketa beroni zor zaio. Horrela amaitzen da aldizkari honen bigarren garaia.

Euskal kulturarentzat aide berriak datoz. Euskalerraren Adiskideen Elkarteak bere alaba heldu ta maitea den *EGAN* berriro bere babespean artzea erabaki du, eta aide berriak eraginda, garai berri bateri hasiera ematea: hirugarren garaia, hain zuzen.

Gaurtik aurrera, **Gipuzkoako Foru Aldundia** eta **Eusko Jaurlaritzaren** elkarren laguntza dugu, euskerazko aldizkari zahar hau, gure herriko etorkizun konplexu, sail eta itxaropentsuaren barruan, bide onetik eramango degula espero dugu. Egitekoaren zailtasunez osorik jabeturik gaude, baina, bigarren garaian hain ondo lan eginez, bide ezin hobegoan eraman dutenen laguntzarekin, ziur gaude helburu hau lortuko dugula.

Berplazaratze honetan, esker beroena azaldu nahi dugu, orain aurkeztzen dizuegun ale honen antolaketan hainbeste lan egin duen Juan San Martin jaunari, eta nola ez, esker mila, urterik urte, alerik ale, beren lan interesgarriekin aldizkariaren orrialdeak osatzen dituzten laguntzaile guztiei, eta azkenik, *EGAN* desagertu ez zedin, ixilpean, ezkutuan, beren ahalegin guztiak egin zituzteneri, bereziki Manuel Agud eta Julián Martínez Adiskideei.

E.A.E.